

KOMUNITATEA MUGIMENDUAN (INGURUMARI SOZIALARI BEGIRATUA)

Andoni Eizagirre

andoni_eizagirre@huhezi.edu

(MU, HUHEZI fakultatea)

Gaia

- **Eginkizuna:** Herri mugimenduen bilakaera eta gaurkotasuna aztertzea ...
- **Bide-makulua:** Ingurumari sozialari begiratu bat emanaz.
- **Lan-hipotesia:** “Errepertorio diskurtsibo eta mobilizatzaileak sasoi historikoaren arabera dira”.
- *Komunitatea mugimenduan, ingurumari sozialari begiratu.*

Oraintsuko galderak (kezka-eremuak)

1. **Komunikazioa:** harreman moduak aldatu eta ugaritu;
2. **Gizarte antolakuntza:** aldatu, erakundeen eta pertsonen artekoak ere bai, nolako harremanak administrazioa/gizarte eragileak/indibiduoak hirukoaren artean?;
3. **Partaidetza moduak:** profesionalizatu, zeintzuk horren inplikazioak elkarte baten antolakuntzan eta zereginean?;
4. **Ingurumari soziala:** kontsumoa, aisialdia, gozamen pribatua;
5. **Gizarte pertzepzioak:** ikusminak, arduren banatzea, motibazioak; normalizaziorako arduradunen pertzepzioak;
6. **Hizkuntza hautua:** zeintzuk dira jendartearen balioak hautua egitean? Zeintzuk dira elkarteek transmititu beharreko diskurtsoak?

Gizarte mugimenduak: oinarrizko premisa bat

1. Gizarte mugimenduen eginkizunak:
 1. Instituzioak eta aldatetaren kontrakoak “ahuldu”, persudiatu, e.a.
 2. Jendartearen aldatetarako gogoia barneratu, hedatu eta sendotu;
2. Bi eginkizun horiek iparra izanda, erreperitorio diskurtsiboa eta ekintza kolektiboaren logikak pentsatu behar da. Hala, gizarte mobilizatuak eragile atzerakoia (*status quo*) ahultzen du, eta alderantziz, lan eraginkorra egin ahal du gizartearen ilusioa eta grina berpiztuz.
3. Beraz, ipar hori motibatu eta gerturatzen duten diskurtsoak eta mobilizazio-tresnak dira egokiak;
4. Gure kasuan egokitasun eta eraginkortasun teorikoaren ikuspuntu soziologikotik egingo da gogoeta;
5. Jakinda:
 - helburua dela: normalizatu ez dagoen komunitate bati normalizaziorako guneak eta espazioak artikulatzen laguntzea;
 - zeregina dela: oro har sistemaren kudeatzaileei beren helburuak eta bitartekoak eraldatzera behartzea;
 - bitartekoa dela: gune eta espazio horietara jendartea erakartzea eta bere gogo-aldartea gaurkotzea;
6. **Gaur, beraz, jakin behar ditugu zeintzuk diren instituzioen diskurtsoak normalizazioari begira, horiek direlako gizarte mugimenduek jomugan ipini eta eraldatu beharrekoak.**

Hitzaldiaren egitura

1. Gizarte mugimenduen azterketa:

Paradigmak eta ikerlerroak;

Premisa: ingurumari bakoitzak bere errepertorioa.

2. Sasoi historikoak: iragan hurbilaren hiru faseak.

3. Herri mugimenduak XXI. mendearen atarian:

Herri mugimenduak ingurumari sozial berrian;

Herri mugimenduak eta euskal protesta zikloa;

Herri mugimenduen porrot-garaipenak;

Herri mugimenduen arazo diskurtsibo eta mobilizatzaileak.

4. Herri mugimenduak eta hizkuntzaren normalizazioa:

Diskurtso legitimatzailearen premisak, gaur;

Arazoak, baldintzak eta desafioak.

1. zatia

Atalaren eskema

1. Gizarte mugimenduak: paradigmak eta ikerlerroak;
2. Premisa: sasoi eta ingurumari bakoitzak bere errepertorioa.

Aztergaiak

Definizioa	Gizarte sareak Esanahi alternatiboaren proposamena (<i>“contentious politics”</i>) Arloen aniztasuna Alternatibak: organizatze ko eta jardute ko, ideia-mailan Ezaugarri instituzionalak eta anti-instituzionalak Aldakorrak.
Eraldaketa esparruak (Gizarte mugimenduak bere botere dinamiko osoa gorpuzteko eremuak)	Ikusmoldean (ideologia eta diskurtso mailan); Balioetan (arau-egituretan, unibertso sinbolikoan); Subjektuetan (egituraketa politikoan); Agendan (lehentasunen erabakitzean).
Aztergai posibleak (ekintza kolektiboaren ondorioak)	Organizazio eta mobilizazio egiturak; Diskurtsoa, barne-bilakaera eta zilegitasuna jendartean; Aukerak, trabak eta aliantzak; Ikasgai estrategikoak eta diskurtsiboak.
Euskal Herriko gizarte-errealitatea	Kapital sozial sendoa; Askotarikoa; Mobilizazio eta protesta ugariren iturri; Gatazkaren kultura, mobilizazio dinamika etenbakoa; Egokitasun, motibazio eta inplikazioaren zentzu trinkotua; Berezitasunak: Testuinguru estrukturalaren alde soziokulturalak; Mobilizazioaren testuinguru estrukturala; Mobilizazio dinamiken zorua (nolako eta zergatia ulertzeko.)

Ekintza kolektiboen azterketa

Paradigmak

Garaia eta ingurumaria (30 / 50 hamarkadak)	<p>Totalitarismoak, kontra-mugimenduak; Joera estrukturalak: masa alienatua; Joera psikologikoak: anomia, jokabide psikologiko desbideratuak.</p>
Paradigmak	<p><i>Portaera kolektiboaren teoria</i> Leizea instituzioen eta gogo sozialen artean; Kexu espresiboa; Motibazio kolektiboa.</p> <p><i>Hautaketa arrazionalaren teoria</i> Arrazoi instrumentala eta utilitariora; Baldintzak: lorpenak > kostuak (materialak eta sozialak); Hautu indibiduala.</p>
Zedarri historiko berria: 60 / 70 hamarkadako paradigmak	<p>Nortasun berriak, forma berriak, aktore berriak; Zilegitasun-krisiaren testuinguru europarra; Estrukturalista / Marxista / Kognitiboa; Baliabideen mobilizazioaren teoria; Aukera politikoaren egitura: estrukturalak eta koiunturalak; Prozesu politikoa eta mobilizazio zikloak: Testuinguru makropolitikoa; Erakundeen egiturak; Aktoreen hartu-emanak; Ekintza kolektiborako faktoreak eta baldintzak.</p> <p>Galdegai berriak: mobilizazio-eraginen ondorioak; Ekintza kolektibo berrien ondorioak.</p>

Oraintsuko galderak (kezka-eremuak)

1. **Komunikazioa:** harreman moduak aldatu eta ugaritu;
2. **Gizarte antolakuntza:** aldatu, erakundeen eta pertsonen artekoak ere bai, nolako harremanak administrazioa/gizarte eragileak/indibiduoak hirukoaren artean?;
3. **Partaidetza moduak:** profesionalizatu, zeintzuk horren inplikazioak elkarte baten antolakuntzan eta zereginean?;
4. **Ingurumari soziala:** kontsumoa, aisialdia, gozamen pribatua;
5. **Gizarte pertzepzioak:** ikusminak, arduren banatzea, motibazioak; normalizaziorako arduradunen pertzepzioak;
6. **Hizkuntza hautua:** zeintzuk dira jendartearen balioak hautua egitean? Zeintzuk dira elkarteek transmititu beharreko diskurtsoak?

Diagnostikorako paradigma hautatua

Prozesu politikoa eta mobilizazio zikloak

- **Zein da testuinguru makropolitikoa?**
- **Nola egituratzen dira erakundeak?**
- **Nolakoak dira aktoreen hartu-emanak?**
- **Zeintzuk dira ekintza kolektiborako faktoreak eta baldintzak?**

GIDOIA

1. Gizarte mugimenduen azterketa:

Paradigmak eta ikerlerroak;

Premisa: ingurumari bakoitzak bere errepertorioa.

2. Sasoi historikoak: iragan hurbilaren hiru faseak

3. Herri mugimenduak eta beren bilakaeraz:

Ingurumari soziala;

Euskal protesta zikloa;

Porrot-garaipenak direla eta;

Arazo diskurtsibo eta mobilizatzaileak.

4. Herri mugimenduak eta hizkuntzaren normalizazioa:

Diskurtso legitimatzailearen premisak, gaur;

Arazoak, baldintzak eta desafioak.

2. zatia

Sasoi historikoak	Aztergaiak
1. 60-70.eko hamarkadak.	1. Testuinguru sozio-politikoak.
2. 75-80.eko hamarkada.	2. Arlo kulturala.
3. Fase berantiarra: 1. Konfluentziak: Borroka-moldeak. 2. Erakundetzea: Agenda politikoa.	3. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduak.

Fase goiztiarra

60/70.eko hamarkadak	Europa eta ezker berria (gizarte mugimenduen sendotze-prozesua); Gerra zibila, frankismoa eta gaitzidura: Testuingurua; Mugimenduak: langileria eta abertzaletasuna; Diskurtso politikoaren ardatza: aurkakotasuna; 1970 (Burgos-ko Prozesua) – 1977 (Amnistia orokorra).
Arlo kulturala	Testuingurua – gerra galdua, diktadura / Iparraldea: Gogo-aldarteak – erreakzioa: gaitzidura eta erresistentzia / Kantagintza; Etenak: Orixe / Nemesio / ETA; Xedeak – tradizioaren berreskuratze gaurkotua. Matrize etnikoaren gainditzea / Herria / Debekua / Etorkizuna = Subjektu kontzientzia. Adierazleak – ETA, ideologia, gizon-emakumea, hezkuntza-ikastola, euskarazko prentsa, sukaldaritza berria, kantautoreak; Oskorri – eguraldi ona – “zerua datorkigu Euskal Herrira”. “Guk euskara, zuk zergatik ez”.
Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduak	Esperientzia ziklikoak, XIX. mendea, Pizkundea; Frankismoa; 60.eko hamarkadan gizarte mugimenduaren eratzea: Euskararen batasuna eta normalkuntza; Ikastolen abiaraztea; Euskal hiztunak alfabetatzea eta erdaldunei hizkuntza irakastea; Euskara euskal kulturaren alor guztietara zabaltzea. Gizarte mugimendu anitz, zabal eta askotarikoena.

Trantsizio fasea

<p>75-80.eko hamarkada</p>	<p>Erreforma, desilusia: Ezezo politikoa, langile mobilizazioa, kultura/hizkuntza eskariak. Desmobilizazioa, auzo mugimenduen krisialdia. Ezker tradizionalaren ezintasuna eskari berriak erantzuteko. “Berandu agertu, krisiak goiz harrapatu?” Euskal Herriaren berezitasunak: Antolatze, mobilizatzeko eta eragin gaitasuna; Mugimendu autodeterminista. “Herri mugimenduak” ala “gizarte mugimenduak”?</p>
<p>Arlo kulturala</p>	<p>1973 – 1980 errealitate gordina: desilusia, krisi ekonomikoa (langabezia), ajea; 1982: Erantzun berria / “euskal kantagintzak ez die beharrei erantzuna ematen”; Euskal rock mugimendua; 1. “No future for you” – Zarama / ... / Eskorbuto; 2. Haustura: matrizearen aldaketa. Lehen hurbilketak – Konplizitateak. Matrize soziokulturala birformulatu eta sendotzen da.</p>
<p>Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduak</p>	<p>Legegintza hutsunea: Ofizialtasunaren aldarrikapena; Ekitaldi kolektiboen abiaburua (Kilometroak); Euskararen Liburu Zuria; “Bai Euskarari” kanpaina / Korrika. Euskararen Legeak (1982, 1986): Hizkuntza-politikak, bulego teknikoak, itzulpen zerbitzuak; Euskal Kultur Erakundea (semi-publikoa, 1985).</p>

Hamarkada berantiarrak

<p>Figura humano berria</p>	<p>Aldibatekotasun esperientziak eta bere kontzientzia. Aukera kulturalen ugaltzea – teknologia berriak – hezkuntza orokortua. Teknologia berriak – eskenatoki sinboliko, afektibo eta kognitiboa ugaritu. Bizitza publikoaren ahultzea - “Hedonismoa”. Ifrentzuak: Hedapena vs.? Sakontasuna; Informazioa vs.? Ezagupidea; Merkatu-logikaren <i>barneraketa</i> eta entropiaren arriskuak; Auto-mugaketa baliabideen ahuleziak: kultura terapeutikoa? Ahalmen-sareak eta gizarte zibila. Euskalgintza eta gizarte zibilaren auzia.</p>
<p>Arlo kulturala</p>	<p>Identitate legitimatzailearen inplikazioak: Jendartean adostasuna lortzea du xede; Boterea orain zilegi bilakatu da; Kultura da hegemoniak ber-erakitzeke espazioa; Kultura nagusiak bir-sortu egiten du boterea; Paradoxa: “euskal kultura ez da subalternoa”. Erresistentzia-identitatearen arazoak: “euskal kultura auzitan?” Proiektu-identitatea falta zaigu, eta horren inplikazioak bizi ditugu?</p>
<p>Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduak</p>	<p>Lankidetzaren instituzioekin eta zatikatzeak: Euskal Kulturaren Batzarra / Oinarriak / Deiadar; Helduen euskalduntze politika(-k). Kontzientzia nazionala eta horri batasuna emateko beharra / KONTSEILUA.</p>

GIDOIA

1. Gizarte mugimenduen azterketa:

Paradigmak eta ikerlerroak;

Premisa: ingurumari bakoitzak bere errepertorioa.

2. Sasoi historikoak: iragan hurbilaren hiru faseak

3. Herri mugimenduak eta beren bilakaeraz:

Ingurumari soziala;

Euskal protesta zikloa;

Porrot-garaipenak direla eta;

Arazo diskurtsibo eta mobilizataileak.

4. Herri mugimenduak eta hizkuntzaren normalizazioa:

Diskurtso legitimatzailearen premisak, gaur;

Arazoak, baldintzak eta desafioak.

3. Zatia

Aro aldaketa (“desmobilizazioaren arrazoiak”)

1. Faktore unibertsalak (ingurumari soziala)
Aldaketa soziologikoak / Unibertso sinboliko berria.
2. Faktore partikularrak
Protesta-zikloaren arazoak
3. Faktore konstitutiboak
Herri mugimenduen gaurkotasunaz

Herri mugimenduak (I)

Desmobilizazioaren arrazoiak (I)

Zergati unibertsala: (des)mobilizazio zikloen tesia

1. Erantzun ziklikoak, prozesu sozialen arabera:

1. Elkartasuna / Mobilizazioa;

2. Indibidualismoa / Desmobilizazioa.

2. Zein da sasoi berriaren ingurumaria?

Herri mugimenduak (II)

Desmobilizazioaren arrazoiak (I)

1. Desinstituzionalizazioa ... aspektu kezkarri bat bezala?
 1. Arlo normatiboan: erreferentzia kolektibo eta solidoen ahultzea ... des-orientzioa?
 2. Arlo soziokulturalean: indibidualismoa, kontsumoa ... hedonismoa?
 3. Arlo politikoan: “demokraziaren zuribidea”, eskubideen erreinua, eta “hiritar ukiezina”.
2. Indibidualizazioa (des-tradizionalizazioa) ... aspektu baikor bat bezala?
 1. Aldaketa estrukturalak eta subjektu indibidualaren autonomiarako oinarriak;
 2. Gizakiak bere burua indibiduo bezala irudikatzeko eta gorpuzteko ahalmen efektiboa;
 3. Giza agentzia aldaketen motore bezala.
3. Kezkagunea: non amaitzen da “indibidualizazioa” eta non hasten da “kultura likidoa”? Autonomia gaitasunaren parekoa ote da auto-mugaketa gaitasuna, eta beraz subjektu erreflexibo bezala erabakitzea?
4. Zeintzuk dira bere inplikazioak?

Herri mugimenduak (III)

Desmobilizazioaren arrazoiak (II)

Zergati partikularra:

1. “Euskal protesta zikloaren agortzea”:

1. Ez da dilema bat (bezala susmatzen herritarren pertzepzioetan) talka hegemonikoen alderaketa historikoa (abertzaletasunean, euskalgintzan, e.a.);
2. Talkaren faltan, polarizaziorik eta mobilizazio-konpromisorik ez?;
3. Ekibalentzia-kateak eta zehar-eraginak ere amaitu dira ... “GU” bat?
4. Metafora berriak dira “inposizioen alboratzea” eta “elkarlana” ... diskurtso legitimatzaileak?

2. Zeintzuk dira bere inplikazioak?

Aro aldaketa (“desmobilizazioaren arazoak”)

1. Faktore unibertsalak

Aldaketa soziologikoak / Unibertso sinboliko berria.

2. Faktore partikularrak

Protesta-zikloaren arazoak.

3. Faktore konstitutiboak

Herri mugimenduen gaurkotasunaz.

Taxonomia 1

Baliabide eta antolatzeko moduari begira	Erakunde tekniko-enpresarialak; Profesional-sindikalak; Herri erakunde militanteak.
Ikuspegiaren eta lanerako norabidearen arabera	Norabide politiko eta instituzionala: normalkuntzan eraginarazi; Norabide antropologikoa: euskara eta hiztunekin lan egin; Norabide soziologiko eta dialektikoa: berreskurapenerako koordinazioa eta planifikazioa adostu eta gauzatu.

Taxonomia 2

(irizpide estrategikoa eta botereari begirako iharduna)

<p>Euskalgintza I</p>	<p>Egunerokotasunean oinarritua;</p> <p>Interferentziak eta liskarrak saihestuz;</p> <p>Hiztunen taldea egituratu eta indartzea xede dutenak;</p> <p>Proposamenen izaera: pragmatikoa, positiboa, errealista.</p>
<p>Euskalgintza II</p>	<p>Botere-estrategiari atxikiak;</p> <p>Hizkuntza-politikari kritikoak, Elebitasuna vs. Elebakartasuna;</p> <p>Jarrera aldarrikatzailea (irakaskuntzan, administrazioan);</p> <p>Presio soziala, salaketa eta borroka, ekintza zuzena.</p>

Herri mugimenduak (IV)

Jarrerak (III)

Diagnostikoa (herri mugimenduen kasuan)

1. Botere-paradigmak topea (unibertsala, lokala):
 1. Gizarte aldaketak, irudikari kolektiboaren bilakaera, instituzioetara egokitzea eman direnez ...
 2. ... “Irekiera arazoak”;
 3. Euskal protesta-zikloaren akitzea (etikoa, politikoa);
2. Joera baten sendotzea eta bere zehar-ondorioak:
 1. Euskararen mugimenduak aldatu eta garaiko beharretara egokitu izan direnez;
 2. Eragin-politikaren hazkundera eta interes-taldeen ugaltzea;
 3. Anbiguotasun naturala: “Instituzioekin ez... edo bai, baina...”.
3. Pertzepzio sozialak: normaltasun-sentsazioa / ilusio falta / hegemonia arazoa / gizarte aldaketak: galdu egin da balio eta kultura-molde batekin izan zezakeen lotura (ideologikoa).

Herri mugimenduak (V)

Kezka-guneak (IV)

“Orain gutxi geu ere botere-paradigma batetik eragin-paradigma batera pasa gara, aitortzen gaituzte, tarteka proposamenak ere bai, keinuak daude”.

Ondorioa: eragile aitortua, arauen betearazlea, eraginkorra izatera pasatzea.

Zenbait arrisku/arazo, arrakasta dela eta:

1. Profesionalizazioa eta gestio teknikoa, “hizkuntza-politikaren kaltetan”;
2. Orainaldiaren tirania, bulkada etikoaren kaltetan?;
3. Non da “eragile ukatua”, “arauen desafiatzailea”, “berritzailea”?
4. Eragin-politika: errutinazkoa bilakatzen da, kooptazioa nagusitzen da;
5. Nortasun-paradigmaren ahultzea? Botere-politikaren ahultzea?

Herri mugimenduak (VI)

Gogoeta berrien peskizan (V)

Oinarrizko premisak (gogorapena):

1. Iparra: besteak ahuldu eta pertsuaditu, aldaketa barneratu, gogoia piztu;
2. Bitartekoa: errepertorio diskurtsibo eta ekintza kolektibo `egokia`;

Euskararen mugimenduak:

1. Eginkizuna: normalizatua ez dagoen komunitate bati normalizaziorako guneak eta espazioak artikulatzen laguntzea eta oro har sistemaren kudeatzaileei beren helburuak eta bitartekoak eraldatzera behartzea;
2. Diagnostiko biren agerpena:
 1. Jarrera kritikoa: “nortasun-politika” eta “botere-politika” baztertuak geratu dira, eta orain xede bakarra “eragin-politika” bilakatu da?
 2. Jarrera ekintzailea: “identitate legitimatzailea” ez da euskaltzalea, “erresistentzia identitatea” ez da egokia aro estatutistan, eta beraz “proiektu identitatea” da aterabidea eta horren faltan gaude?

GIDOIA

1. Gizarte mugimenduen azterketa:
Paradigmak eta ikerlerroak;
Premisa: ingurumari bakoitzak bere errepertorioa.
2. Sasoi historikoak: iragan hurbilaren hiru faseak
3. Herri mugimenduak eta beren bilakaeraz:
Ingurumari soziala;
Euskal protesta zikloa;
Porrot-garaipenak direla eta;
Arazo diskurtsibo eta mobilizatzaileak.
4. Herri mugimenduak eta hizkuntzaren normalizazioa:
Diskurtso legitimatzailearen premisak, gaur;
Arazoak, baldintzak eta desfioak.

Tesia

Erreprozitatea dago hizkuntza-politikaren eta ingurumari sozialaren artean, erreprozitatea dago hizkuntza-politikaren eta norbanako berriaren artean.

Erreprozitate horren eragileak dira merkatu-irizpide eta -kontzeptuen nagusitzea, hizkuntza-politiken diskurtsoetan zein norbanakoen errealitate sozialean.

Premisa legitimatzaileak (edo: dominatzaileak)

- * “Atzera modu positiboan begiratu eta aurrera itxaropentsuak izan behar dugu”. “Adostasuna da bidea”.
- * “Euskara guztion ondarea da; ez da batzuenak, ez du izan behar eskluyentea”;
“Euskara despolitizatu eta gatazka-ardatz izateari utzi behar dio”.
- * “Bere egin gabe daudenek, bere egin beharko lukete euskara”;
“Giro atsegin batean eta erakargarria izatea lortu behar da, hala egingo du nor indibidualak (hiztunak) euskararen aldeko hautua”.

Diskurtso eratorriak

1. **Kontra-mugimenduak** (“Plataforma por la Libertad de Elección Lingüística”).
2. **Askatasunaren haurrak:** *des-tradizionalizatzea* eman da eta hizkuntza bien artean egoera orekatua ere lortuta, hiztunari “hautu erreflexiboa” egitea dagokio. Ondorioz: “hizkuntza eta identitate nazionala bereizi behar dira”; eta, “hizkuntzak pertsonen zerbitzura egon behar du, politikek hiztunen eskubideak defendatu behar dituzte”.
3. **Liberal onbideratuak:** “urrats neurtuak eman eta sakondu komunitate linguistiko baten instrumentuetan”; “euskalduna izatea bere kasuan ondorio bat izan behar du, ez helburu bat”. “Ez dira nahastu behar: hedatzea eta sakontzea”.
4. **Desertoreak:** euskaldun integratuaren konplexuak; “ez da inposatu behar”. “Erreaktiboa da gainera. Horren lekuko: euskararen aldeotasuna handia bada ere, elebakarrak dira gehienak”. “Konklusioa: apriorismo abertzalearen akatsak hizkuntza-politikan”. “Sakondu behar da gozamenean, seduzitzeko beste hiztunak,” sasoi historiko berriarekin bat eginaz.
5. **Arlote beldurtia:** amableak metropolian. Hedonismoaren(a) sintoma bat ote?

Zenbait arazo-gune

Badira oraintsu indarra hartzen ari diren **egiaztapenak**:

1. hizkuntza-gaitasunean eragiten badute hezkuntzak, familia bidezko transmisioak eta ingurune soziolinguistikoak, oraindik orain muga gaindiezinak eskolatik kanpora daude;
2. aterabidea herritarren atxikimendua eta borondatea da.

Zenbait arazo-gune:

1. Gazteak eta euskara, erabilera dela eta:

- baieztapena: “gaztetxoentzat euskal hizkuntza instrumentala da”;
- gogoeta: arazo bakarra eskolan soilik “bizi” dutela eta hartzaile zein erdal elebidunen erraztasun erlatibo txikiagoa dela ote?
- kritika: bigarren hizkuntza kontsideratzeak kultura-identitatearen auzia saihesten du ...

2. Jarrera pragmatikoa dela eta:

- baieztapena: “hautu indibiduala errespetatuz, erakargarritasuna da giltzarria”;
- gogoeta: euskaraz bizitzeko zirkuituak (eta horiek kalitatezkoak) ahalbidetzea aski da?
- kritika: espazioak euskalduntzeko ahaleginean, beldurrak jota (ez-atsegina), betebeharren auzia saihesten dugu ... (gainontzean: eskaintza badago, baina eskaria ez!)

3. Eskaintza oparoa eta atseginaren garrantzia dela eta:

- baieztapena: “euskaldun-militanteak orain eskaintzari ipini behar dio arreta”;
- gogoeta: auzi publikoa pribatizatu eta merkatu-irizpide indibiduala da aterabidea?
- kritika: esparru ez-formalen eta pertsonalen bideragarritasuna (bezeroaren) kontzientziari eta konpromisoari loturik dago.

Erronka berriaren oinarriak

Ezagutza soziolinguistikoa: “Euskararen diskurtsoak berritu ahal izateko, gizarteak soziolinguistikaz blaitu behar du, bere diskurtsoak euskalgintzaren planteamenduarekin bat egin dezan. Bestela, oinarri sozialen faltan, euskalgintzaren lana alferrikakoa izango da”.

Balio-aldaketa: Balioen paradigma aldatuta (garapen pertsonalaren ideala), “euskararen aldeko aldarrikapena orain arte Euskal Herriaren izenean egin bada, gaur egun hizkuntza horrek gizabanakoari ekar diezaiokeen onuran ere oinarritu beharko da, aldarrikapena helburu kolektiboetatik, indibidualetara ere zabalduz.”

Konpromisoa (eta/ala) Betebeharra: Aldaketa ugari eman dira azken hamarkadetan, horren lekuko da orduko eta gaurko sinpatikoak eta patetikoak kalifikatzean desberdintasunak antzematea. Gainontzean, “euskaltzalea izanda ere, herritar sinpatikoak uste du euskara berreskuratzea hezkuntza-sistema, administrazio publiko eta adituen kontua dela; ez norberarena”.

Etena gaintitu behar da, euskararen abangoardiak herriaren babesa eta indarra berreskuratu behar ditu ... soziolinguistika-ezagutza jendarteratuz eta normalkuntzaren komunikazio-estrategian herritarrek duten garrantzia ikusaraziz.

Arazoak (arazo “politikoak”)

1. Arazo orokorrak:

1. Hizkuntza-politika nozio bezala desagertu egiten da;
2. Hizkuntzaren indibidualizazioa (edo: “arazo sistemikoari aterabide pertsonala”);
3. “Tok-tok: ba al da inor –gobernuan, hegazkina gidatzen-? Baina orduan dei geniezaieke `interes orokorraren kudeatzaileak´?”

1. Arazo zehatzak:

1. Adostasun posibleak premisa legitimatzaileak onartzetik soilik letozke. Ez dago “gatazka”, gogo-aldarte bat eskatzen da (ez ozpindu, iragana baloratu, e.a.);
2. Nor indibiduala (hiztuna) da subjektua. Ez dago subjektu kolektibo bat (Herria, Hizkuntza);
3. Hiritar inpekableak dira indibiduo berriak. Ez dago betebeharririk, eskubideak bakarrik (hautatu ahal izateko eskubidea, ez hautaturikoa bermatuko zaizula!).
4. Aipaezina: “hizkuntza eta kultura-identitatea”.
5. (Ezagutzari eta erabilerari begirako auzia saihesten da; 1982ko Legeak jarritako helburuak ere ahaztu nahi dira, besteren artean berek adostu, kudeatu *baina* lortu ez dituztelako?)

... bitasunak ...

HIZKUNTZA	HIZTUNA
ERKIDEGOIA	NORBANAKOIA
GAUZA PUBLIKOIA	KEZKA PRIBATUA
GATAZKA	ADOSTASUNA
ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	HAUTATZEKO ESKUBIDEA
[...]	[...]

Egiaztapenak (errepasso bat)

- 1.- Gizarte mugimenduen helburuak dira aurkaria pertsudiatzea eta jendearen aldaketa gogo eragitea.
- 2.- Horrek gogo-aldarte kritikoa eskatzen du: boluntarismoa ez da aski, gizarte zibilaren mobilizazioa da aktibo bakarra, eta mobilizazio-eragilea nortasun-politika (talde pertinentzia, kideetasunaren kontzientzia, besteekiko diferentzia) da.
- 3.- Euskara eta kultura defendatzea, mundu-mailako borroken testuinguru globalean, subjektu eraldatzailearen parte izatea da.
- 4.- Ibilbide historikoak bi ikasgai dakarzkigu:
 1. Identitate legitimatzaileak ez du ekarriko normaltasuna, eta bere diskurtso-aldaerek hizkuntza gauza publiko bat bezala ulertzeari utzi diote, desertzio horretan hiztunen aterabide pertsonalera mugatuz etorkizuna;
 2. Erresistentzia identitateak ez du lortu aldaketa eragitea, alegia, arauak desafiatzea, artikulazio hegemoniko berri bat errotzea eta beraz herri euskalduna sortzea.
- 5.- Estatutuaren hurrek deskolonizazio prozesua gainditu izanaren pertzepzioa dute, egoki deritzote ibilbideari, arrunta zaie egoera. Euskararena ere borroka ideologiko bat da, baina jendarte beste “kezka” batzuetan harrapatua bezala dabil.
- 6.- Euskal jendarte kultura asebetean bizi da. Badago indibidualismoarekiko desenkantua (joera europarra), identitateen garaia da, baina gure kasuan identitate-aterpea ez da euskara.

Paradoxak eta zailtasunak

Mugimendu euskaltzalea sintonian dago egungo borrokekin, baina irudikari kolektiboaren kariatara gure protesta zikloak topea jo du.

Ekintza kolektiboen errepertorioa mugatua da, abegikortasun soziala irabazi nahi bada. Auto-mugaketa ei da aurre-baldintza:

1. borroka-molde baketsuak eta diskurtso ez-belikoa.
2. plazerari begirako errepertorio diskurtsiboa.

Baina diskurtso legitimatzaileak erakutsi digu horren ordaina hizkuntza-politika baztertzea dela, hiztuna eta bere eskubideak ardatz bilakatzea, “erkidegoa” eta “betebeharra” nozioak aldaratzea.

Egiaztapen hori izan liteke gizarte mugimenduek barneratu beharrekoa, horri aurre egiteko, normalizazio bidean eragile atzerakoia eta bere diskurtsoa eraldatzeko.

Amaitzeko, baieztapen bat...

Manuel Castells

- “Aterabidea proiektu-identitateak eratzea da. Alegia, aktore sozialek eskuartean dituzten tresna kulturelekin jendartean beren posizioa birdefinitzea lortu behar dute, hala egitura sozial osoa ere eraldatzeko xedearekin, esperientziaren zentzu holistiko bat aditzera ematen duten heinean.
- Baina proiektu-identitateak ez dira aro industrialeko gizarte zibiletik sortuko (identitate legitimatzaileen kasua), gaur eguneko erresistentzia-identitateen garapenarekin eta gaurkotzearekin baizik.
- Izan ere, subjektu kolektiboak, gaurkotuak badira, ez da identitate legitimatzailean eta berak konfiguraturiko gizarte zibilean oinarrituko, baizik eta erresistentzia komunitarioaren luzapen bat bezala”.

... mobilizazio-zikloaren oinarritzko baldintzak

- Botere-paradigma alternatiboa eratu:
 - Botere-, eragin- eta nortasun-politika birpentsatuz;
 - Motibazioaren erreproduzioa eragin behar da;
- Hizkuntza-komunitatearen zentraltasuna lehenetsi:
 - Normalizatorako guneak eta espazioak artikulatzeko xedea auto-baieztatu;
 - Euskaldun oso izateko posibilitatearen gorentasun etikoaz persuaditu;
- Eremita sozialak artikulatzeko gaitasuna izan:
 - Espazio normalizatuen aldeko subjektu galdetzailea eratu;
 - Lobby-ak eratu:
 - Espazio normalizatuen sendotze-prozesua bermatzeko;
 - Ezagutza-, berrikuntza- eta aisialdi-guneetara hedatzeko;
 - Segurtasunaren eroalea izan, ertz komunitarioa berrindartuz;
- Polarizazio gaitasuna erakutsi eta jendarteratzeko premia aitortu:
 - Komunitate bat izateko hautua hobetsi, sinetsi eta ikusarazi;
 - Euskara ardatz hartuta:
 - Prozesu estetikoak galdegilea (eskatzailea) eta ekintzailea (sortzailea) izan behar du;
 - Eduki politikoak akordio onargarriak lortzera bideratu behar dira (“muga gaindiezinak” daude);
 - Jarrera etikoak gurearen gorentasunaz (hizkuntza-ekologia) persuaditu behar du.
- Berritzailea eta ilusio-eragilea (jendartean aldaketa-gogoa ere erdietsi behar delako):
 - Ekintzetan: jarduera sozial berriak eraginaz (aurkariaren boluntarismoa hutsala da);
 - Diskurtsoan: irudikari kolektibo berriak adostuz (agoniak bere topea jo du).

KOMUNITATEA MUGIMENDUAN (INGURUMARI SOZIALARI BEGIRATUA)

Andoni Eizagirre

andoni_eizagirre@huhezi.edu

(MU, HUHEZI fakultatea)